

Donostia

2008ko otsailak 13, Asteazkena

[Hasiera](#) | [Agenda](#) | [Zerbitzuak](#) | [Irudietan](#) | [Merkatu Txikia](#) | [Agurrak](#) | [Txokoa](#) | [Begiradak](#) | [Hemeroteka](#)

bilatu...

[Azken ordukoak](#) | [Blogak](#) | [Bideoak](#) | [Fonoteka](#) | [Eztabaidak](#) | [Inkestak](#) | [Zurea da Hitza](#) | [Elkarrizketa Digitalak](#) | [Papereko edizioa](#)
[Hasiera > Paperekoak](#)[RSS](#)

DONOSTIA

[Aiete](#)[Altza](#)[Amara Berri](#)[Amara Zaharra](#)[Añorga](#)[Antigua](#)[Bidebieta](#)[Egia](#)[Erdialdea](#)[Gros](#)[Ibaeta](#)[Igeldo](#)[Intxaurren](#)[Loiola](#)[Martutene](#)[Parte Zaharra](#)[Zubieta](#)

Tximistarri waterpolo elkarteak 67 bazkide ditu, eta gehiago izan nahi ditu etorkizunean.

Ur gaineko eskubaloia

NAROA BALSATEGI
[jokalaririk](#)

Igeriketa izaten da normalean haurrei irakasten zaizen lehen kirola. Ikastolarekin ikastaroak egiten dira. Ikasle eta irakasleak autobusa hartu

eta denak batera igerilekura joaten dira. Batzuek gustuko dute igeri egitea eta beste batzuek, berriz, beste kirol batzuetara jotzen dute. Igerilekuan, ordea, igeri eginez beste zenbait kirol egiteko aukera dago, besteak beste, waterpolo.

Hirian Tximistarri da waterpolo elkarte bakarra. Altzako kiroldegian entrenatzen dute Tximistarriko jokalariek egunero eta larunbatetan Lezoko talde hasiberriarekin elkartu eta denak batera Altzako igerilekuan bertan entrenatzen dira. Kontuak kontu, kirol honen sorrera Donostian Tximistarri elkarte bano lehenagokoa da.

Easo elkartean emandako lehen pausoak

« Easo elkartearen bidez hasi ginen waterpoloan, baina atal gehiago dituen taldea da, eta guk elkarte osoa waterpoloren inguruan egotea nahi genuen. Hasieran Fortunarekin sartzekotan ibili ginen, baina nahi ez zutenez, geure taldea osatu genuen», adierazi du Ioseba Urrutia taldeko entrenatzaileak.

Lehen urteetan 14-15 jokalaririk inguru hasi ziren baina urteak aurrera joan ahala 67 bazkide izatera iritsi dira: «Eskola kirolan sartzeari lotu dugu eta horrek harrobia lantzen laguntzen digu. Horrekin batera, bazkide kopuru hori izatea primerakoa da, marka dela esan baitezaket». Zortzi eta 42 urte bitarteko jokalaririk dituzte taldean. «Zaharrena Txema Marimon presidentea da. Jokalaria izaten jarraitzen du, gero eta gutxiago jokatzen badu ere».

Euskadiko Lehen Mailara igo nahi dute

2003an Euskadiko Lehen Mailan jokatzea lortu zuten, baina jokalariek zituzten ikasketa eta lan kontuen ondorioz, ondo entrenatu ez eta kategoria galdu egin zutelako gogoratu du Urrutiak. «Azkenean waterpolo zaletasuna da eta zenbait momentutan ezin izan genuen behar bezala entrenatu. Baliteke jokalarien adinarengatik izatea –lan kontuak direla eta, zenbait entrenamenduetara ezin izan zuten etorri–, eta azkenean maila galdu genuen. Orain helburua berriz ere, Euskadiko Lehen Mailara igotzea izango da eta ahal bada etorkizunean, Espainiako ligetan jokatzea».

Jokalarien prestaketa aurrera eramateko hainbat aldaketa egin dituzte aurtan. «Bereziki eskolarteko mailan egin ditugu aldaketak. Azken finean egin behar dugun lehenengo gauza igeriketa ikastea da eta horrexegatik bi egun horretara zuzentzen ditugu – hauek hautazkoak dira– eta beste bi egunetan, berriz waterpoloan jokatzen dugu». Haurrak gustura asko doazela dio entrenatzaileak eta kirol hau praktikan jartzeko trebetasun berezia ez dela behar aipatu ere.

Emakumeentzako kirola

Euskal Herrian waterpolo egiten duten emakumezkoen talde gutxi dago, eta Tximistarrin ere gauza bera gertatzen da; ez dago emakumezkoen. Non dauden galdetuta, Urrutiak honakoa esan du: «Orain hiru urte galdera honi erantzun nionean honakoa esan nuen: emakumeek primeran egin dezakete eta gure taldeko ateak irekiak dituzte. Baina hiru urteotan ez da emakumerik azaldu. Beraz kontrakoa esan beharko dut, pixka bat ziztatu eta horrela waterpolo egiten has daitezten: emakumeak ez daude waterpoloan ezin dutelako, zailtasunak dituztelako eta gogorra delako beraientzat. Ea horrela gurera hurbiltzen diren... Hernanik neskek baditu eta Easo ibili zen baina uste dut emakumezkoen taldeak ateratzeko arazoekin ibili direla».

Waterpolo zabaltzeko ekimenak

Egutegi bat atera berri dute Tximistarrikoek –bildutako dirua Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren elkartearentzat–, eta duela urtebete txapelketa bat antolatuta zuten: «Gipuzkoako selekzioa Arabakoaren kontra aritu zen eta Bizkaikoa Nafarroakoaren kontra. Egindako kartelarekin eta txapelketarekin waterpolo aditzera eman nahi izan genuen», azaldu du Tximistarri elkartearen entrenatzaileak.

Edonork probatu beharko lukeen kirola dela azpimarratzeaz gain, igerileku guztietan praktikan jarri beharko litzatekeen kirola dela uste du Ioseba Urrutiak. «Igerileku guztietan ordu bete eskainiko balitz waterpoloari, ziur naiz askoz ere jende gehiago izena emango lukeela. Baina momentuz, soilik Altzann egotearekin konformatu behar».



AGENDA

ERAKUSKETA

'Project Rainbow'

DONOSTIA, Fnac - 2008-01-15

MUSIKA

Underneed

ERDIALDEA, M.A.D (Larramendi kalea) - 2008-02-16

Zure inguruko ekitaldien berri eman

[Ekitaldi guztiak ikusi >](#)

IRUDIETAN

DONOSTIA



San Sebastian Eguna 2008

[Gehiago ikusi >](#)

hitza

Busturialdeko Hitza

Goierriko Hitza

Irutxuloko Hitza

Oarsoaldeko Hitza

Tolosaldeko Hitza

Urola Kostako Hitza

Lea-Artibaialdeko

weba

Bai Euskarari



Laguntzaileak



Gipuzkoako
Foru Aldundia



- jokalariak
- Jaime Abalos, 34 urte.
 - Iñaki Agirre, 27 urte.
 - Ion Agrelo, 20 urte.
 - Ivan Baz, 29 urte.
 - Joseba de Miguel, 26 urte.
 - Xanti Eskurra, 19 urte.
 - Ibai Feito, 17 urte.
 - Koldo Gallego, 30 urte.
 - Ruben Gomez, 29 urte.
 - Kepa Iribarren, 28 urte.
 - Victor Labrador, 29 urte.
 - Jose Maria Marimon, 41 urte.
 - Pablo Rodriguez, 20 urte.
 - Iñaki Sainz, 35 urte.
 - Endika Sanchez, 18 urte.
 - Iñaki Sanchez, 24 urte.<\d>
 - Ioseba Urrutia, 33 urte.
 - Aritz Velaz, 17 urte.
 - Eneko Zumeta, 32 urte.
 - Pablo Rodriguez, 14 urte.
 - Daniel Blanco, 32 urte.
 - Javier Camacho, 25 urte.
 - Daniel Franco, 14 urte.
 - Jon Ander Franco, 14 urte.
 - Julen Idigoras, 16 urte.
 - Jon Mikel Matia, 15 urte.
 - Iker Oiarzabal, 17 urte.
 - Jon Ramos, 16 urte.



Jasotako erantzunak:

[Mezua idatzi](#)

PARTE HARTU | ZURE MEZUA BIDALI

Izena:

e-posta:

Izenburua:

Mezua:



Aurreko kodea kopiatu:

Parte hartzeko arauak

1. - Saiatu zure artikulua izen-abizenekin sinatzen. Indar handiagoa du.
2. - Iritzia anonimoki eman nahi baduzu, baduzu horretarako aukera ere. Kontuan hartu ondokoak:
 - * Ez pertsonala. Pertsona bati buruz ari garenean zehazki, kritikatzeko edo famatzeko, anonimoek ez dute balio. Eta, kasu honetan, pertsona fisikoez ari gara, ez entitate juridikoez.
 - * Entitate juridikoez anonimoki aritu daiteke, baina pertsonalizatu gabe, eta talante eta errespetu onean; iraindu gabe, doako akusaziorik egin gabe... errespetuan.
 - * Aurreko gauza bera gai orokorrean idatzi behar denean ere.
 - * Norbaitek pertsonalki sinatutako iritzi bati, pertsonalki erantzutea dagokio, eta ez anonimoki.

Mezua bidali

3. - Dena arautzea ezinezkoa da, batez ere hau bezalako webgune batean. Mesedez, denon zentzu ona eta kolaborazioa eskatzen ditugu. Apenas izango den logika bezalako arautzaile zuzenik kasu hauetan.

[Hasiera](#) | [Albisteak](#) | [Blogak](#) | [Bideoak](#) | [Eztabaidak](#) | [Inkestak](#) | [Zurea da Hitz](#) | [Paperekoak](#) | [Agenda](#) | [Zerbitzuak](#) | [Irudietan](#) | [Merkatu Txikia](#) | [Agurrak](#) | [Txokoa](#) | [Begiradak](#) | [Hemeroteka](#)

© **Donostiako Hedabideak, S.L.** - Katalina Eleizegi 36 behekoa - DONOSTIA - Tel.: 943 46 72 36
Faxa: 943 44 65 32 - E-posta: donostia@irutxulokohitza.info

Internet Ehuntzen S.L.-k garatua

Donostiako Hedabideak, S.L.ko kideak: **Bagera**
Bertako Hedabideak (EKT)
eta **Donostiako Berriak Kultur Elkarte**: 40 gizarte eragile.

[Lege Informazioa](#)